



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**NZ-hitz anizkunak euskaraz: lehen
hurbilketa bat**

Maialen Mariezkurrena Goñi

35-42 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.04>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



NZ-hitz anizkunak euskaraz: lehen hurbilketa bat

Maialen Mariezkurrena Goñi

UPV/EHU

mmariezkurrena002@ikasle.ehu.eus

Laburpena

Artikulu honek euskarak munduko beste hizkuntzekin partekatzen duen bereizgarri tipologiko bat aztertzen du: galdetzaile anitzeko egiturak, hau da, NZ-hitz bat baino gehiago dituzten galderak. Saio honen xedeak honakoak dira: autore desberdinek NZ-galdetzaile metatuko galderen inguruan esan dutenaren sintesia egitea; honekin batera, adituek egin dituzten proposamenetan aurkitzen diren desberdintasunak argitzea; eta azkenik, adituek defendatzen dutena berretsi edo ezeztatzeko burutu nuen galdetegia eta jasotako emaitzak azaltzea.

Hitz gakoak: galdetzaile metatuak; goragotasuna; NZ-mugida; foku-mugida

Abstract

This paper studies a distinctive typological property that Basque language shares with other languages: multiple wh-questions, questions that have more than one interrogative pronoun. These are the aims of the article: to do a synthesis about what different authors have said regarding multiple wh-questions; to explain different accounts that experts have on multiple wh-questions; finally, analyze the survey I conducted to know whether people agreed or disagreed with the experts' opinion, and the results obtained.

Keywords: multiple wh-phrases; superiority; wh-movement; focus-movement

1. Sarrera eta motibazioa

Galdetzaile anitzeko egiturak NZ-hitz bat baino gehiagorekin eraikitzen diren perpausak dira. Adibidez: *What did John give to who?* (Bošković, 2002). Tipologikoki egitura konplexuak dira, eta ez dira hizkuntza guztiek partekatzen duten ezaugarri tipologikoa: Dayalen (2017) hitzetan, irlandera eta italierak ez dituzte mota honetako galderak onartzen.

Nazioarteko ikerlariak NZ-galdetzaile metatuen egiturak ikertzerako orduan honako irizpideak hartu dituzte kontuan: galderak eraikitzean hizkuntzak zein estrategia baliatzen duen; hizkuntzetan galdetzaileen artean goragotasuna sumatzen den ala ez; galderen interpretazioa zein den; galdetzaileek zein mugida mota egiten duten.

Irizpide hauen arabera honela sailkatzen dira hizkuntzak:

1. Hizkuntzek egiturak sortzeko erabiltzen dituzten estrategiaren arabera 4 hizkuntza mota bereizten dira (Stoyanova, 2008): aurreratze anizkuneko hizkuntzak (galdetzaile guztiak aurreratzen dira); *in-situ* hizkuntzak (ez da NZ-hitzen mugidarik antzematen), hizkuntza mistoak (galdetzaile bat aurreratzen da, eta bestea *in-situ* gelditzen da) eta galdetzaile anitzeko egiturak onartzen ez dituzten hizkuntzak.
2. Aurreratze anitzeko hizkuntzen kasuan, galdetzaileek ezker periferiako espezifikatzaile batera egiten duten mugimendua Chomskyk (1973) proposatutako *Goragotasunaren baldintza*¹ betez burutu ahal da. Honen arabera, hizkuntzak hiru taldetan banatu daitezke: testuinguru guztietan goragotasunaren baldintza betetzen duten hizkuntzak (esaterako, bulgaria), testuinguru jakin

¹ *Goragotasunaren baldintza*: Arau batek ezin die Xri eta Yri eragin honako egituran: ...X [α ... Z... -WYV-...]. baldin eta arauak Zri zein Yri eragin badiezaieke eta Z Y baino gorago badago (Z Y baino gorago egotea= Zk Y o-komandatzeari) [Chomsky, 1973 apud Artiagoitia, 2023]. Subjektua, beraz, gorago dago objektua baino eta, ondorioz, *nork esango du zer?* galderak goragotasuna obeditzen du baina *zer esango du nork?* galderak, berriz, ez.

batzuetan goragotasunaren baldintza betetzen duten hizkuntzak (serbo-kroaziera); eta azkenik, galdetzaileen artean goragotasunik antzematen ez diren hizkuntzak (errusiera, kasu).

3. NZ-galdetzaile metatuko egiturek izan dezaketen interpretazioaren arabera bi hizkuntza mota bereizten dira. Batetik, pare bakarreko erantzunak onartzen dituztenak (errusieraren kasua); eta bestetik, pare anitzeko erantzunak eskatzen dituzten hizkuntzak (bulgariera).
4. Galdetzaileek ezkerreko periferian kokatzen den espezifikatzailearen batera egiten duten mugidarengatik bi hizkuntza mota desberdintzen dira. NZ-tasuna zilegiztatzeko galdetzaileak aurreratzen dituzten hizkuntzak (ingelesa), eta foku-tasuna zilegiztatzeko aurreratzen dituztenak (errusiera). Gerta daiteke hizkuntza berean NZ-mugidak eta foku-mugidak, biak, gertatzea (bulgarieraren kasua). Eta gerta daiteke, halaber, hizkuntza berean foku- eta NZ-mugida berdintsuak izatea, adibidez, euskaran.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Euskaran *nork zer esan du?* zein *nork esan du zer?* bezalako perpausak eraikitzea zilegi da. NZ-hitz anizkuneko galderak nazioarteko ikerlarien arreta piztu duten egiturak diren arren, euskalaritzan egoera ez da berdina. Egiturak zeharka aipatzen dituzten lanak daude, baina gaiari zuzenean heltzen dioten lanak urriak dira: Artiagoitia (2023), Etxepare (2018, 2021), Jeong (2004) eta Reglero (2004). Aditu hauek bakoitzak bere aldetik proposamenak egin dituzte, baina iritzi desberdinak direla eta, ez dira iritsi egituren inguruko irizpideak zehaztera.

Honakoak dira finkatzeko dauden irizpideak:

1. Galdetzaileen arteko goragotasuna (dela NZ-hitz bat aurreratzean dela bi edo gehiago aurreratzean).
2. NZ-hitzek egiten duten mugida mota.
3. NZ-galdetzaile metatuko egituren interpretazioa.

Nire lanaren helburua euskarazko galdetzaile anitzeko egituren inguruan autoreek esaten dutenaren sintesia egitea izan zen, adieraziz zein diren irizpide bakoitzarekiko dituzten proposamen desberdinak. Bestetik, gaia landu duten egileen arteko kontraesanak direla eta, zehazteko dauden irizpideetatik abiatuta, 5 ikergai hautatu nituen galdetegi bat diseinatzeko.

Galdetegia egiterakoan, nire xede nagusiak hauexek izan ziren: hiztunek autoreek defendatzen zutena berretsi edo ezeztatzen zuten frogatzea, eta hiztunaren profilaren inguruko faktoreek, adibidez adin-tarteak, emaitzetan eragiten zuten aztertzea.

3. Ikerketaren muina

Jeong-en arabera (2004), euskaran estrategia desberdinen bidez eraiki daitezke NZ-galdetzaile metatuko galderak. Gorago aipatutako hizkuntzen sailkapenaren arabera, euskara aurreratze anizkuneko hizkuntza zein hizkuntza mistoa da; hau da, euskaran galdetzaile guztiak aurreratu daitezke ezker periferiako espezifikatzaile batera, edo NZ-hitz bat edo bi aurreratzen dira eta gainerakoak *in-situ* gelditzen dira.

- (1) a. **Nork nori zer** eman dio? (galdetzaile guztiak aurreratu dira)
b. **Nork nori** eman dio **zer**? (bi galdetzaile aurreratu dira, bat *in-situ* gelditu da)
c. **Nork** eman dio **nori zer**? (galdetzaile bakarra aurreratu da, bi *in-situ* gelditu dira)

3.1. Galdetzaileen arteko goragotasuna

Galdetzaile bakarra aurreratuta daukaten egituren kasuan, Jeong (2004) eta Etxepare eta Ortiz de Urbina (2003) lanek iradokitzen dute ez dela goragotasunaren eraginik antzematen egituretan, eta edozein galdetzaile aurreratu daitekeela lehena.

Aitzitik, Ortiz de Urbinak (1989) galdetzaileak espezifikatzailerak aurreratzeko erabakian goragotasunak eragiten duela defendatzen du, eta subjektuaren NZ-hitza objektuari lotutako galdetzailearen aurretik aurreratzen dela:

- (2) a. **Zer** ekarri du **nork**? [Etxepare eta Ortiz de Urbina 2003: 499]
b. ?? **Zer** esan du **nork**? [Ortiz de Urbina, 1989: 265]

Bi zein hiru galdetzaile aurreratuta dituzten egituren kasuan ere ez da iritsi zehaztera galdetzaileek jarraitu behar duten hurrenkera. Bi galdetzaile aurreratuta dituzten egituretan, Etxeparek (2021) defendatzen du [+bizidun] diren galdetzaileen artean ez dela goragotasunik antzematen; baina bi galdetzaileetako bat *zer* [+bizigabea] denean hurrenkera jakin bat jarraitu behar dela.

- (3) a. **Nork nor** ikusi du?
b. **Nor nork** ikusi du?
c. **Nork zer** ikusi du?
d. ***Zer nork** ikusi du? [Etxepare, 2021: 5-6]

Jeong-ek (2004) ez ditu bere lanean honako egiturak aztertzen, baina Etxeparek (2021) ez bezala, (3b) adibidea ez luke ontzat joko ez diolako goragotasunari eusten.

Hiru NZ-hitza aurreratuta dituzten egituren inguruan ere kontraesanak daude galdetzaileek jarraitu behar duten hurrenkeraren inguruan. Jeong (2004) eta Ortiz de Urbinak (1989) galdetzaileen ordena perpaus barneko komunztaduraren arabera izan behar dela argudiatzen dute: *ergatibo > datibo > absolutibo*. Etxepare (2021) eta Reglerok (2004), berriz, beren lanetan galdetzaileak hurrenkera askean aurreratu daitezkeela adierazten dute:

- (4) a. **Nork nori zer** esan zion? [Ortiz de Urbina, 1989: 83]
b. **Nor nork nori** aurkeztu dio? [Etxepare, 2021: 5]

3.2. Galdetzaileek egiten duten mugida mota

Ortiz de Urbinaren (1999) arabera, NZ-hitzen zein fokuek Fokuaren espezifikatzaile posizioa mugida berdintsua egiten dute. Foku- eta NZ-mugida antzekoak dira euskaraz: A2 fenomenoak daukate, mugida luzea eta ziklikoa egiten dute; eta irla sintaktikoak obeditzen dituzte (Artiagoitia, 2000; Irurtzun, 2015). Foku eta galdetzaileen antzekotasunak eraginda, autore desberdinek (Ortiz de Urbina, 1999; Eguzkitza, 1986; Reglero, 2004...) euskaraz NZ-hitzen foku-mugida egiten dutelako ideia onartu dute.

Galdetzaile anitzeko egituretan NZ-hitzen egiten duten mugidaren inguruan bi proposamen egin dira. Reglerok (2004) aurreratutako galdetzaileen arabera ezberdintzen ditu mugidak.

- (5) **Nork** erosi du **zer**? [Reglero, 2004: 272]

Aditzaren aurrera galdetzaile bakarra aurreratzen denean, kasu honetan *nork*, galdetzailea erreferentziala ez bada foku-mugida burutuko du. Erreferentzialak diren galdetzaileak, adibideko *zer* NZ-hitza, perpaus barneko Top-Sintagma batean topikalizatuta egongo dira. Laburbilduz, *Nork* galdetzaileak foku-mugida egiten du, eta *zer* galdetzailea topikalizatuta dago.²

Etxeparek (2018) NZ-galdetzaile metatuko galderetan bi mugida bereizten ditu: galdera tasunarekin lotzen dena eta galdegai edo fokuekin lotzen dena. (5) adibidean *Nork* galdetzailea NZ-tasuna

² Regleroren (2004) azterbidearen berezitasuna da ez dagoela galdetzailerik *in-situ*, eta denak mugitzen direla Dnbs/InfS barnean.

zilegiztatzeko aurreratu dela defendatzen du, eta *zer* galdetzailea galdegai tasun batekin lotu behar dela. Hori horrela, *zer* galdetzailea *in-situ* dagoela onartzen du.

Bi galdetzaile aurreratuta dituzten egituren kasuan, Reglerok (2004) adierazten du aditzaren ezkerrean agertzen den galdetzailea fokalizatuta dagoela, euskaran aditzaren ezkerretara agertzen den edozein elementu bezala; eta galdetzaile baten aurretik kokatzen diren elementuak topikoak izan ohi dira euskaran.

(6) **Nork zer** erosi du?

[Reglero, 2004: 280]

Hau guztia esanda, Reglerok (2004) *nork* galdetzaileak topiko izaera daukala eta *zer* galdetzailea fokalizatuta dagoela argudiatzen du bere lanean. Etxeparek (2021), berriz, *nork* galdetzailea NZ-tasuna zilegiztatzeko aurreratzen dela defendatzen du, eta *zer* galdetzaileak foku-tasunak erakarrita burutzen duela mugida.

3.3. Egiturek izan ditzaketen interpretazioen inguruan

Galdetzaile anitzeko egiturek pare bakarreko edo pare anitzeko erantzunak onar ditzakete hizkuntzaren arabera. Bošković-en (2002) iritzian, galdetzaileek Konp-en espezifikatzailera egindako mugidarekin batera pare bakarreko erantzunak baztertzen dira. Pare bakarreko erantzunak galdetzaileek foku-mugida egiten dutenean onartzen dira bakarrik.

Euskararen kasuan, autoreek iritzi desberdinak dituzte NZ-galdetzaile metatuko galderek izan ditzaketen interpretazioen inguruan.

(7) **Nork** erosi du **zer**?

[Etxepare, 2021: 6]

Etxeparek (2021) iradokitzen du arestiko (7) galderak erantzun pare bakarrak onartzen dituela bakarrik. Baieztapen hau kontraesankorra da Bošković-en teoriarekiko: izan ere, Etxeparek (2021) defendatzen duen moduan aurreratzen den galdetzaileak benetako NZ-mugida burutzen badu, orduan galderak erantzun pareak eskatzea espero dugu, eta ez pare jakina.

Reglerok (2004), perpausak erantzun bikoteak eduki ohi dituela argudiatzen du, baina bere informatzaileetako batek ere erantzun pare bakarra onartzen duela zehazten du. Ondorioz, (7) adibidean eta euskaran orokorrean ez dela NZ-mugidarik gertatzen defendatzen du. Hau da, euskara errusiera bezalako hizkuntza izango litzateke, non galdetzaileak foku-mugidagatik bakarrik aurreratzen diren.

(8) **Nork zer** erosi du?

[Etxepare, 2021: 9]

Aurreko adibidearekin alderatuta, kasu honetan ez daukagu galdetzailerik aditzaren ostean eta biak aurreratu dira perpauseko ezkerreko espezifikatzaileren batera. Reglerok (2004) (7) eta (8) adibideen artean, hau da galdetzaile bakarra aurreratuta eta bestea aditzaren ondoren eta galdetzaile guztiak aurreratuta dituzten perpausen artean, ez dagoela interpretazioan aldaketarik adierazten du. Honen arabera, bi galderak erantzun pareekin erantzutea ohikoa da, baina pare jakin batekin ere ihardetsi daitezke.

Etxeparek (2021), aitzitik, (8) perpausak pare anitzeko erantzuna eskatzen duela argudiatzen du. Hortara, kasu honetan *zer* galdetzailearen foku-mugidarekin batera aurreneko galdetzaileak espezifikatzailera NZ-mugida burutuko luke.

3.4. Galdetegiaren batez bestekoak

Egoera argitzeko asmoarekin, bost eztabaidagai hautatu nituen autoreen arteko kontraesanetatik abiatuta eta galdetegi bat diseinatu nuen. Inkesta *Google Forms* webgunearen bitartez burutu nuen, eta bertan partaideei bost punturen inguruko iritzi gramatikala emateko eskatu nien.

Informatzaileei galdera edota erantzunaren testuingurua ematen zitzaien eta 1etik 5erako eskala baten arabera baloratu behar zuten; 5ekoak *testuinguru arrunta* esan nahi zuen eta 1ekoak onartezina edo *testuinguruan desegokia* adierazten zuen.

Honakoak izan ziren aztergaiak:

1. Galdetzaile anitzeko egituren interpretazioen inguruan:

- Etxepare (2021) eta Regleroren (2004) iritzi desberdinetatik abiatuta, *Nork ekarri du zer?* galdera pare jakin bateko testuinguruan egokia ote den frogatzea zen nire asmoa. Etxeparek (2021) aukera bakarra erantzun pare jakina dela defendatzen du, eta Reglerok (2004) galderak erantzun bikoteak eduki ohi dituela nahiz eta bere informatzaileetako batek pare jakinak onartu.
- *Nork zer irakurri du?* perpausak pare bakarreko zein pare anitzeko erantzunak onartzen dituen ikertu nahi nuen. Reglerok (2004) galdera erantzun pareekin zein jakinekin erantzutea posible dela iradokitzen du. Etxeparek (2021), aitzitik, perpausak erantzun pareak bakarrik eskatzen dituela dio.


2. Galdetzaileen arteko goragotasunari dagokionez:

- *Zer erosi du nork?* pare anitzeko testuinguruan aurkeztuta hiztunek onartzen duten edo ez argitu nahi nuen. Jeong (2004) eta Etxepare eta Ortiz de Urbina (2003) lanetan galdetzaile bakarra aurreratzean ez dela goragotasunik antzematen adierazten da. Ortiz de Urbinak (1989), aldiz, galdetzaileak aurreraterako hautuan goragotasunak eragiten duela argudiatzen du, eta subjektu eta objektuari dagozkion galdera hitzak daudenean perpausuan subjektuari lotutako galdetzailea aurreratzen dela lehena. Hortara, aztergai den *zer erosi du nork?* galdera oso zalantzazkoa da Ortiz de Urbinarentzat.
- *Zer nork erosi du?* pare anitzeko testuinguruan egokia ote den frogatzea zen nire xedea. Kasu honetan autoreak bat datoz bi galdetzaile aurreratzen direnean *zer* ezin dela agertu lehenengoa eta denek baztertzen dute.
- Hiztunek *nor nork jo du?* perpausa pare anitzeko erantzunekin onartzen duten ikertzea zen nire helburua. Etxeparek (2021) [+bizidun] galdera hitzen artean ez dela goragotasunik antzematen defendatzen du. Jeong-ek (2004) nahiz eta zuzenean ez duen aztertzen, ez-gramatikaltzat joko luke ez diolako goragotasunari eusten.

Orotara, galdetegia 127 pertsonen bete zuten: horietatik 82 pertsonaren ama-hizkuntza euskara zen, 29 pertsonarena gaztelera, eta 16k gaztelera/frantsesa eta euskara zituzten ama-hizkuntzatzat. Ondorengo grafikoan euskara ama-hizkuntza eta etxetik elebidunak diren hiztunen batez bestekoak, hau da 98 hiztunen datuak, jaso ditut bakarrik ikergaia mugatzeko asmoarekin.

Honakoak dira jasotako emaitzak:

1. irudia. Euskara H1 eta 2H1 duten hiztunen batez-bestekoak



- Galdetzaile anitzeko egituren interpretazioen inguruan:

1. *Nork esan du zer?* galdera pare bakarreko testuinguruan aurkeztuta: ama-hizkuntza euskara duten hiztunek onartzen dute, baina onarpena ez da izugarrikoa (3,18/5). Etxetik elebidunak direnen kasuan, onarpena handiagoa da 3,44ko batez bestekoarekin.
2. *Nork zer irakurri du?* pare anitzeko zein pare bakarreko erantzunak onartzen ditu: galderak bi testuinguruetan formulatuta onarpen zabala jaso zuten hiztunen aldetik. Pare anitzeko testuinguruan aurkeztuta, euskara H1 duten partaideen onarpena 3,68koa izan zen; eta bi hizkuntza ama-hizkuntzatzat dituzten hiztunen kasuan 4,06/5 batez bestekoa jaso zuen. Galdera pare bakarreko testuinguruan aurkeztuta, 3,60ko onarpena lortu zuen bostetik euskara H1 daukaten hiztunen kasuan. Etxetik elebidunak diren partaideek, berriz, onarpen zabalagoa erakutsi zuten 4,25ko batez bestekoa jasoaz erantzunak.


- Galdetzaileen arteko goragotasunaz:

3. *Zer erosi du nork?* galdera pare anitzeko testuinguruan: hiztunen ikuspegitik ez dirudi galdera txarra denik 3,41 eta 3,31ko batez bestekoak jaso baitira.
4. *Zer nork erosi du?* pare anitzeko testuinguruarekiko egokitasuna: harrigarriro hiztunen artean nahiko onarpen zabala izan zuen bai euskara H1 daukaten hiztunen kasuan (3,04/5), bai euskara 2H1 dutenen kasuan (3,06/5)
5. *Nor nork jo du?* pare anitzeko erantzunak onartu: hiztunen aldetik daturik kaxkarrenak jaso zituen galdera izan zen 2,44 eta 2,69ko onarpenekin.

3.5. Batez bestekoak adin-tartearen arabera

Hiztunen onargarritasuna aztertzeaz gain, amaieran jasotako batez bestekoetan hiztunaren profileko ezaugarriek eragiten ote zuten frogatu nahi izan nuen. Horretarako, partaideen adin-tartea aintzat hartu nuen eta hiru talde bereizi nituen: gazteak, 16-30 urte bitarteko hiztunak; helduak, 31-60 urte bitarteko partaideak; eta, adinekoak, 60 urtetik gorako pertsonak. Grafikoan galdetegian parte hartu zuten jatorrizko euskaldun guztien datuak islatu dira, euskara ama-hizkuntza bakarra (H1) zein bigarren ama-hizkuntza (2H1) zelarik.

2. irudia. Onargarritasuna adin tarteka (euskara H1+ 2H1)



Emaitzek argi erakusten dute adin tartekak galdetzaile anitzeko egitura batzuk eta hauen inguruko interpretazio zehatza onartzerako orduan eragiten duela. Kasu guztietan, *nor nork...?* perpausaren kasua kenduta, 60 urtetik goragoko hiztunak dira egitura hauekiko onargarritasun handiena erakusten dutenak. Azken galdera honi dagokionez, adin tarte guztiek antzera jokatzen dute perpaus hori onartu edo errefusatzeko orduan.

4. Ikerketaren ondorioak

Euskalaritzan galdetzaile anitzeko egiturak gutxi landu izanak zuzenean eragiten du gaia jorratzen duten artikuluen urritasunean, eta autoreek gaiarekiko erakusten dituzten kontraesanetan. Autore desberdinen eskutik hainbat proposamen egin dira egitura hauen inguruko irizpideak finkatzeko, baina oraindik galdera asko erantzun gabe gelditu dira. Hasteko, galdetzaile bat edo gehiago aurreratuta dituzten egituretan NZ-hitzen artean egon daitekeen goragotasunaren inguruan autoreek iritzi desberdinak dituzte, eta ez dira iritsi proposamen bateratu bat egitera. Galdetzaileek egiten duten mugida motarekin jarraituz, egileen artean kontraesanak daude. Azkenik, NZ-galdetzaile metatuko galderek izan ditzaketen interpretazioen inguruan adituak ez dute zehaztasunik eman.

Diseinatutako galdetegiarekin gaiari nire ekarpena egiten saiatu naiz. Galdetzaile anitzeko egituren interpretazioen inguruan, *Nork ekarri du zer?* galderaren kasuan, emaitzek Regleroren (2004) azterbidearen alde egiten dute eta pare bakarreko erantzunak onartzen dituela frogatu ahal izan dut. *Nork zer ekarri du?* perpausaren kasuan pare jakineko zein anitzeko erantzunak onartzen dituela egiaztatu ahal izan dut. Galdetzaileen artean egon daitekeen goragotasunarekin jarraituz, *zer erosi du nork?* hurrenkerak 3,41 eta 3,31ko batez bestekoak jasota erakutsi dut hiztunak Jeong (2004) eta Etxepare eta Ortiz de Urbinaren (2003) ikuspegiaren alde jarri direla. Harrigarria bada ere, *Zer nork erosi du?* perpausari dagokionez, adituak bat datoz ezinezkoa dela, baina frogatu ahal izan dut hiztunen partetik onarpen handia jaso duela (cf. 3,04/5 eta 3,06/5). Azkenik, *Nor nork jo du?* perpausaren kasuan, Etxeparek (2021) ontzat ematen duen arren, hiztunen gehiengoak, euskara ama-hizkuntza bakarra (cf. 2,44/5) zein bigarren ama hizkuntza (2,69/5), errefusatu du. Beraz, jasotako emaitzetatik ondorioztatu daiteke euskara ama-hizkuntza bakarra (H1) zein bigarren ama-hizkuntza (2H1) daukaten hiztunen arteko datuen artean ez dagoela desberdintasun nabarmenik. Aitzitik, hiztunen arteko adin-tartean alde nabariak antzematen dira galdetzaile anitzeko egiturak eta hauen interpretazioak onartzerako orduan: izan ere, hiztun helduenak dira onarpen handiena erakusten dutenak.

5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Ikerketan landu diren atal desberdinekin ikertze lanerako bidea irekita gelditzen da. Egindako lanak agerian uzten du gaiak ikerketa sakonagoa egiteko duen beharra. Besteak beste, NZ-galdetzaile

metatuko galderen inguruko irizpideak finkatzeko: galdetzaileen arteko goragotasuna, NZ-hitzez egiten duten mugida mota eta egiturek izan ditzaketen interpretazioak.

Nabarmentzekoa da galdetzaile anitzeko egiturak landu dituzten autore gehienak DS kategoriako NZ-hitza (*nor, nori, nork, zer*) dituzten galderak aipatzera mugatu direla. *Non, noiz, nora* bezalako leku-denborazko galdetzaileak dituzten konbinazioak, adibidez *Nor non eseri da?* edo *Nork noiz zer esan du?*, adituek gutxi landu dituzte edo ez dituzte beren lanetan aipatu. NZ-galdetzaile metatuko galderak konbinazio desberdinen arabera eraiki daitezke: [+bizidun] zein [-bizidun] galdetzaileen konbinaziotik abiatuta. Galdetzaileen konbinazio desberdinek aniztasun oparorako aukera ematen dute, baina konbinazio asko azertu gabe gelditu dira. Hortara, etorkizunera begira, landu diren egituretan ikerketa sakonagoa egitea ez ezik, aurretik ikertu ez diren galdetzaileen konbinazioak lantzea gelditzen da.

6. Erreferentziak

- Artiagoitia, X. (2000). *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia UPV/EHU.
- Artiagoitia, X. (2023). “Galdetzaile metatuak Euskara Arkaikoan eta Klasikoan”. *ASJU* 57 (1-2), 67-87. DOI: <https://doi.org/10.1387/asju.25916>
- Bošković, Ž. (2002). “On multiple wh-fronting”. *Linguistic Inquiry* 33(3). 351-383. DOI: <http://dx.doi.org/10.1162/002438902760168536>
- Chomsky, N. (1973). “Conditions on transformations”. In S. Anderson & P. Kiparsky (arg.), *A Festschrift for Morris*, 232-286. New York: Holt, Rinehart and Winston.
- Dayal, V. (2017). “Multiple wh-questions”. In M. Everaert and H. C. van Riemsdijk (arg.) *The Wiley Blackwell Companion to Syntax*, Second Edition, 1-54. John Wiley and Sons. DOI: 10.1002/9781118358733.wbsyncom095
- Eguzkitza, A. (1986). *Topics on the Syntax of Basque and Romance*. Doktorego tesia, University of California, Los Angeles.
- Etxepare, R. & Ortiz de Urbina, J. (2003). “Focalization”. In J. I. Uhalde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 459-516. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Etxepare, R. (2018). “Ohar bat zer nork hurrenkeraren ezinaz euskaraz”. *Lapurdum* 21. DOI: <https://doi.org/10.4000/lapurdum.3762>
- Etxepare, R. (2021). “Superiority effects without superiority conditions”. *Web Festschrift for Hamida Demirdache*. hal-03505647. DOI: <https://hal.science/hal-03505647v1>
- Irurtzun, I. (2015). “Euskarazko galdera erdibituak: analisi bitar baterantz”, in M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari* (1947-2008), Bilbo: UPV/EHU, 307-324
- Jeong, Y. (2004). “Multiple superiority effects in Basque”. *University of Pennsylvania Working Papers in Linguistics* 10(1), 103-114.
- Ortiz de Urbina, J. (1989). *Parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, J. (1999). “Force phrases, focus phrases and left heads in Basque”. In J. Franco, A. Landa y J. Martin (arg.) *Grammatical Analyses in Basque and Romance Linguistics. Papers in Honor of Mario Saltarelli*, 179-194. Amsterdam and Philadelphia: John Benjamins.
- Reglero, L. (2004). “Preguntas múltiples en euskera”. *ASJU* 38:1, 249-285. DOI: <https://doi.org/10.1387/asju.8873>
- Stoyanova, M. (2008). *Unique Focus. Languages without multiple wh-questions*. Amsterdam: John Benjamins.

7. Eskerrak eta oharrak

Eskerrak eman nahi dizkiot Xabier Artiagotiari, testuari egindako oharrengatik.